



Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos

Bildutakoak: / Asistentes:

Alkatea / La Alcaldesa Andoni Alvarez Lete

Zinegotziak: / Concejales:

EH-Bildu	Marta Lasa Goñi
	Xabier Fondón Pajares
	Garazi Usandizaga Zubiria
	Iosu Mateo Torrillos
	Haizea Barandiaran Zubillaga
PSE-EE	Diego Barrasa Ruiz
	Larraitz Arriola Larrarte
	Maider Lainez Lazcoz
	José Luis Verdasco Gutierrez
	Ascensión Parrón Peguero
EAJ-PNV	Aritz Alkain López
	María Belén Moreno Méndez
	Imanol Goenaga Egibar
Elkarrekin Podemos	Idoia Mikelez Alonso
	M ^a Sagrario Ruiz Fernández
	Jose Mari Iparragirre Balda

Akta Zenbakia	00000006
Eguna	2024/04/25
Hasiera	19.00
Amaiera	19.22

Idazkaria:

Unai Rekondo Pérez

Kontuhartzailea

Myriam Lizaso
Arruabarrena

Interpretaria

Jon Unanue Lopez

Gai Zerrenda:

- 2024/02/29(e)an egindako batzarraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.
- 2023ko aurrekontu orokorraren likidazioaren berri ematea.
- Gastuak judizioz kanpo aitortzeko proposamena.
- 2024/02 zko kreditu aldaketaren berri ematea (kreditu txertaketa).
- 024/03 zko kreditu aldaketa espediente onartzeko proposamena.
2024. urterako taxi hiri-tarifak onartzeko proposamena
- 807/2024 zk.ko Alkatezako Ebazpenaren berri ematea. Hirigintzako eskumenak.
-

Kontrola

- Ebazpenen berri ematea, zehazki, 504/2024 zenbakidunetik 894/2024 zenbakidunera eta Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien berri ematea, zehazki, 7/2024.

Orden del Día:

- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 29/02/2024.
- Dar cuenta de la liquidación del presupuesto general de 2023.
- Propuesta reconocimiento extrajudicial de gastos.
- Dar cuenta del expediente modificativo de crédito 02/2024 (créditos incorporados).
- Propuesta aprobación expediente modificativo de crédito nº 03/2024.
- Propuesta aprobación de las tarifas urbanas de taxi para el año 2024.
- Dar cuenta de la resolución de Alcaldía nº 807/2024. Competencias de urbanismo.

Parte de Control

- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la nº 504/2024 y la nº 894/2024 y de los acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno Local, en concreto los comprendidos entre el



aktatik 9/2024 aktara.
10. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

acta n° 7/2024 al acta n° 9/2024.
9.- Ruegos, preguntas y propuestas.

Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.

“Kaixo, arratsalde on eta ongi etorri 2024ko apirileko ohiko udalbatza honetara. Besterik gabe, udalbatzari hasiera emango diogu.”

1. 2024/02/15 eta 2024/02/29(e)an egindako bileren aktak irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Lehendabizi, 2024/02/15 eta 2024/02/29 datako bazterraldeari dagokien aktak irakurtzeari ekin zaio, eta inork ezer adierazi ez duela kontutan harturik, onartutzat eman dira.

2. 2023ko aurrekontu orokorraren likidazioaren berri ematea.

Alkate jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“2023ko Aurrekontu Orokorraren likidazioa dakargu gaur hona eta saiatuko naiz gerakina herritarrek modu erraz batean edo ulertzeko moduan adierazten.

“Zerbaki asko dira eta ez da erraza, baina saiatuko naiz herritarrek ulertzeko moduan adierazten. 2023ko urteko gerakina, gordina, hartuz gero, 11.239.687 eurokoa izango litzateke, baina kopuru horri kendu behar zaio 1.666.026 euro, batetik, dakizuen bezala, duela urte batzuk Fini Rubiok herentzia bat utzi zuen eta herentzi horri dagokion kopurua eta bestetik, CIIaren alternatibak lantzeko edo jaso genuen diru kopurua. Orduan, 9.573.000 euro geratuko lirateke, baina horri kendu behar zaizkio, batetik, gero laugarren puntuan ikusiko ditugun eta 2023tik 2024ra pasatzen diren fakturak. Hor sartzen da Otitako tunela, Ambrosia Olabide, Zerbitzuetako zerbitzuetako pabiloiaren proiektua eta abar.

“Bestetik, bostgarren puntuan, landuko dugun edo kreditu aldaketa, hor sartuko litzateke batetik udalbatza honetan onartu genuen 0,5eko igoera, Ziakoren hitzarmena eta beste hainbat, Udalbatza honek hartutako erabakiak.

“Orduan, guztira, geldituko litzatekeen gerakina 6.476.000 eurokoa da. Hori da esango genukeena, erabilgarria, esan dezakegu.”

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Lainez andreak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Hola, buenas tardes. Bueno, nosotros no es tanto en cuanto a la liquidación, que en ese sentido el señor Álvarez ya lo acaba de explicar, si no es un poco en cuanto al informe que se ha realizado y que nos ha llamado la atención aquí un punto al finalizar en el que dice que durante el ejercicio 2023 se han presentado por algunos grupos o partidos políticos las justificaciones correspondientes.

“A priori. Bueno, pues parece que son solamente dos grupos los que han presentado las cuentas correspondientes. Y creo que, bueno, estamos todos los partidos llevamos ya varios años en el Ayuntamiento, conocemos las normas que tenemos que seguir, y bueno, en ese sentido sí que queríamos citarlo aquí, porque además, si no me equivoco, es el Pleno el que tiene que solicitar que todos los grupos políticos presenten las cuentas y entendemos que todos lo deberíamos hacer. Así pues, efectivamente, por transparencia y por dar cuenta de a qué destinamos el dinero público correspondiente. Eskerrik asko.”

Alkate jaunak erantzuten du:

“Bai, arrazoi duzu. Hor alderdiok hiru hilabetez behin aurkeztu behar ditugu. Gure kasuan esan beharra daukagu, ekainean aurkeztuko ditugula jada, baina bueno, eta handik aurrera bai, hiru hilabetero saiatuko gara egiten, baina, bueno, ez dugu inongo arazorik eta Ogasun Batzordean landuko ditugu edo erakutsiko ditugu. Ekain hasieran. Lehenengo hiru hilabete hauetakoak.”

Gaia eztabaidatu da eta Osoko Udalbatzarra jakinarren gainean geratu da.



3. Gastuak judizioz kanpo aitortzeko proposamena.

Kontuan hartuz, oro har badakigu sektore publikoa osatzen duten administrazio desberdinen artean, tokiko administrazioa dela herritarrengandik gertuen dagoena eta, hortaz, administrazio honetara zuzentzen dituztela, lehenik eta behin, beren eskaerak.

Tokiko Administrazioak herritarrek eskatzen duten arintasunera eta eraginkortasunera egokitu behar du bere jarduna. Horregatik, zenbaitetan, eta herritarrei erantzuteko, jarduera administratiboa ez da doitzen, zorrotz-zorrotz, berez zurruna den prozedura legezkoa.

Besteak beste, zentzu horretan, ekitaldian ondasunen hornidurari eta zerbitzuen prestazioari dagozkien gastu jakin batzuk egin dira, kontratazio-prozedura alde batera utzita (kontratu-amaiera, gaitasunik gabeko CB), guztiak udal zerbitzu desberdinen garapen arrunterako eta Udalak kudeatutako zerbitzuen prestaziorako behar-beharrezkoak eta ezinbestekoak. Eta baita faktura batzuk erregistratu dira ere epez kanpo.

Prozedura jarraitu ez delako ere Udala aipatutako gastuak ordaintzera behartuta dago, horiek udal aurrekontura egotzi ondoren. Legegileak berak, ezinbesteko zerbitzuak emateko beharrezkoak diren baina nolabait ere "irregularrak" diren jarduera horiek ematen direla jakinik, aipatu gastuak dagokion ekitaldiko aurrekontura egotzeko aukera aurre ikusten du. Egozpen hori, hasiera batean, debekatuta dago, aurrekontuaren urterokotasun printzipioari jarraiki, baina kredituen judizioz kanpoko aitorten espedientearen bidez izapidetzea ahalbidetzen da.

Kontuan izanik administrazioarekiko kaltetzea saihesteko eta, hortaz, administrazioaren aberaste bidegabe edo arrazoigabea saihesteko, ezinbestekoa eta derrigorrezkoa dela egindako gastu horiek ordaintzea; kontuan izanik, halaber, gastuak egungo ekitaldira egotea.

Kontu hartzaileak (2024/05 erref.) egindako txostena ikusi ondoren

Ikusirik, 2024ko apirilaren 16ko Ekonomia eta Ogasuneko Batzorde Irizpenemalaren irizpena.

Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, hirugarrenengo puntu honetan, onartzen dira judizioz kanpoko aitortzen diren gastuak, hauek dira.

“Tazkoak edo aurten berezitasunen bat izan duten fakturak dira. Guztira, hauen kopurua da 15.761,41 eurokoa. Eta gastu hauek udalbatzak onartu behar ditu.

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Lainez andreak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Sí, bueno, por nuestra parte ya lo comentamos también en la Comisión de Hacienda. Lógicamente no tenemos ningún inconveniente en las facturas que aparecen aquí, pero sí nos llamó la atención una de ellas. Aquí cita, que es para la cena del 8 de marzo, a un proveedor, que es una comunidad de bienes. Cuando, bueno, pues ya sabemos desde hace tiempo que el Ayuntamiento no puede contratar con las comunidades de bienes. Es un importe de 3.845,28 euros. Y sí que pediríamos, bueno, pues que eso ya conociéndolo todos, ir conociéndolo todos los técnicos del ayuntamiento, pues intentemos que se cumpla, para evitarnos tener que traer al pleno esas facturas. Eskerrik asko.”

Barandiaran andreak, Gizarte Zerbitzuetako Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, bueno, eraman da gaia Berdintasun Batzordera eta hitz eginda bai teknikariarekin eta bai administratiboarekin. Beraz, datorren ekitaldietarako ez da berriro gertatuko.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate jaunaren eta PSE-EE, EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, aurreko ekitaldian egindako gastuak, bere garaian aurrekontura egotzi ez zirenak, aurrekontu arruntera kredituen judizioz kanpoko aintzatespena egotzeko espedientearen instrukzioa egitea. Zenbatekoa guztira, 15.761,41 euroko delarik.

4. 2024/02 zko kreditu aldaketaren berri ematea (kreditu txertaketa).

Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Likidazioa esplikatzeko, lehen azaldu dut laugarrenengo puntu hau. Hauek dira 2023tik 2024ra pasa diran fakturak. Guztira 2.182.000,66 euro dira. Eta hor, lehen esan dudana bezala, garrantzitsuenak izango



lirateke. Batetik Otitako tunela, 180.000 euro ingurukoa. Ambrosia Olabide, 572.000 euro, zerbitzutako pabiloiaren proiektua 113.000 euro eta beste hainbat faktura.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

5. 024/03 zko kreditu aldaketa espedientea onartzeko proposamena.

“Kreditu gehigarrien (Sarekon 2024-KALD-000003-00) bidezko kreditu aldaketaren 2024/03 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena”

Besteak beste, kontuan izanda, aurreko urteetako konpromisuak eta udalbatzarrak onartutakoak, besteak beste, langilearen %0,5 igoera, onartutako fakturak eta Ziako-ko hitzarmena.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostenak ikusita non bertan adierazten da aipatutako espediente bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Ikusirik, 2024ko apirilaren 16ko Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen irizpena.

Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Gai hori ere likidazioan aipatu dut, baina hemen izango litzateke, guztira, 994.555,69 euroko kopuru bat. Hemen dago, alde batetik, Udalbatza honek 2023rako onartu zuen %0,5eko soldata igoera.

“Bestetik, egongo litzateke Ziakoko hitzarmena eta gero Udalbatzak hartutako beste hainbat erabaki.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate jaunaren eta PSE-EE, EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
1	PERSONAL GASTUAK	51.116,52
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	92.771,54
6	INBERTSIO ERREALAK	850.667,63
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		994.555,69

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	994.555,69
GUZTIRA		994.555,69

2.- Jendurrean ikusgai jartzea hamabost egenez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

6. 2024. urterako taxi hiri-tarifak onartzeko proposamena.

Ikusirik, Udalbatzak, 2007ko otsailaren 16an hartutako seigarren erabakiaren bitartez, Andoingo Udalak Buruntzaldean auto-taxi garraio-zerbitzuaren araubide bereziko zonaldea ezartzeko lankidetzaz-



hitzarmenera atxikitzea onartu zuela, lankidetzeta-hitzarmena aurrez Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbilgo Udalek sinaturik baitzeukaten.

Ikusirik, hitzarmen horren helburuak hauek direla: eskualderako garraio-zerbitzu koordinatua abiaraztea, eskualde barruan modalitate guztietako taxi-zerbitzuak bermatuz, eskualdean dagoen herri bakoitzeko eskariaren eta eskaintzaren arteko desoreka positibo nahiz negatiboak murriztuz eskualdeko baliabideen arrazoizko erabileraren bitartez, eta batetik taxi-zerbitzuaren kalitatea hobetuko duen eta bestetik sektoreko profesionalen lan-baldintzak hobetuko dituen eraginkortasuna bilatzea.

Ikusirik, Lurralde Antolaketarako eta Sustapenerako Diputatuak 2007ko maiatzaren 29an emandako Foru Aginduaren bitartez, turismo ibilgailuetan bidaiarien herri barruko edo herriarteko garraio publikoaren zerbitzua eskaintzeko Buruntzaldeko araubide bereziko eremuaren sorrera onartu zuela. Aginduan esaten da Buruntzaldeko eremu bereziko udalerrri guztietan (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) tarifa bera ezarriko dela zerbitzuaren arabera.

Ikusirik, (AGITAX) Gipuzkoako Taxi Elkartearen Burua den Emilio Fernández Fidalgo jaunak, eta G. Taxi Gipuzkoako Taxisten Elkartearen ordezkaria den Gregorio Alías Jericó jaunaren adostasunarekin, 2024. urterako hiri-tarifaren proposamen bat aurkeztu ziola Buruntzaldeako Taxiaren Eskualdeko Batzordeari, hura osatzen duten udalerrri guztiek euren udaletan onar dezaten.

Kontuan izanik, hiri-garraioaren eremuaren barruan, udalei dagokiela tarifak finkatzea prezioen kontrolari buruzko legerian xedatutakoari jarraiki, bidaiarien automobil bidezko hiri-barruko eta hiriarteko garraio publikoari buruzko ekainaren 29ko 2/2000 Legearen 3. artikuluko hirugarren paragrafoan xedatu bezala.

Kontuan izanik, bidaiarien auto-taxi bidezko hiri-barruko garraioaren prezioak prezioen kontrolari buruzko araudiari lotuta daudela, Autonomia Erkidegoaren eremuko “prezio baimenduen” modalitatean hain zuzen ere. Autonomia Erkidego honetan ahalmen hori Euskadiko Prezioen Batzordeari dagokio, otsailaren 2ko 35/2010 Dekretuaren eta 2010eko ekainaren 15eko Aginduaren arabera.

Kontuan izanik, baimendutako prezioak eta jakinarazitako prezioak berrikusteko prozedura Ekonomia eta Ogasun Sailburuak 2010eko ekainaren 15ean emandako Aginduaren bitartez onartu zela.

Kontuan izanik, Buruntzaldeko Taxiaren Eskualdeko Batzordeak, 2024ko otsailaren 1ean izandako bileran eta aho batez, (AGITAX) Gipuzkoako Taxi Elkarreak aurkeztutako proposamena onartu zuela, eskaerarekin batera aurkeztutako azterketa ekonomikoan esandakoaren arabera.

Kontuan izanik, Buruntzaldeko Taxiaren Eskualdeko Batzordeak onartutako proposamenean 1 eta 2 Tarifei dagozkien dirukopuruak gutxitzea eta 5 Tarifa berri bat sortzea proposatzen dela. Tarifa berri hori ostiral, larunbat eta jai-bezperetako 22:00etatik larunbat, igande eta jaiegunetako 07:00etara aplikatuko da.

Ikusirik 2024ko apirilaren 16an hirigintza eta zerbitzuetako administrazio orokorreko teknikariak egindako txostena.

Ikusirik Zerbitzuetako Batzorde Irizpenemaileak 2024ko apirilaren 22an emandako aldeko irizpena.

Fondón jaunak, Zerbitzuetako Zinegotzi Ahalduak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, arratsalde on. Bueno, Buruntzaldeko batzarrean urteroko igoera aurkeztu eta onartu zen. Zerbitzuetako Batzordean ere aho batez onartua izan zen, eta gaur hona ekartzen dugu bozkatzera.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, jarraian, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate jaunaren eta PSE-EE, EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- 2024. urterako taxi zerbitzuaren hiri-tarifaren proposamena onartzea, onartutako tarifak hauek direlarik:

BURUNTZALDEA		
2024. URTERAKO HIRI BARRUKO TARIFA PROPOSAMENA		
TARIFA 1*	TARIFA 2**	TARIFA 5***



Gutxienek o tarifa	Egindako kilometroa	Itxarote ordua	Gutxienek o tarifa	Egindako kilometroa	Itxarote ordua	Gutxienek o tarifa	Egindako kilometroa	Itxarote ordua
5,964693	0,837677	24,320055	6,91065	1,299642	32,426738	6,925205	1,345130	33,561597

Gutxieneko tarifak 1,5 km-ko ibilbidea edo bost minutuko itxaronaldia barne hartzen du / La tarifa mínima incluye 1,5 km de recorrido o cinco minutos de espera.

(*) Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da / Esta tarifa será aplicable los días laborables desde las 07:00 horas y las 22:00 horas.

(**) Tarifa hau egunero aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. Era berean, II. Tarifa 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da igandetan ea Autonomia Erkidegoko eta tokiko araudian jaiegun diren egunetan, baita larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere / Esta tarifa será aplicable todos los días, desde las 22:00 horas hasta las 07:00 horas. Se aplicará igualmente la Tarifa II desde las 07:00 horas a las 22:00 horas los domingos y días festivos fijados en la correspondiente normativa autonómica y local, así como los sábados y los días 24 y 31 de diciembre.

(***) Tarifa hau ostiral, larunbat eta jai-bezperetako 22:00etatik larunbat, igande eta jaiegunetako 07:00etara aplikatuko da / Esta tarifa se aplicará entre las 22:00 horas de los viernes, sábados y vísperas de festivos y las 07:00 horas de los sábados, domingos y festivos correspondientes.

Aurreko proposamenaren esparruan, Buruntzaldeko eskualdea osatzen duten udalerriek erabilgarritzat eta egokitzat jo dute deskribatutako tarifa-araubideari heltzea egun hauetan, 2. Tarifaren pean:

HERRIA	DATA
Andoain	Ekainaren 24 / 24 de junio (San Juan)
Astigarraga	Uztailaren 26 / 26 de julio (Santa Ana)
Hernani	Ekainaren 24 / 24 de junio (San Juan Bautista)
Lasarte	Uztailaren 1 / 1 de julio (San Pedro)
Urnieta	Irailaren 30 / 30 de septiembre (San Miguel)
Usurbil	Uztailaren 2 / 2 de julio (Santa Ixabel)

2.- Tarifak onartuak izan ondoren, espediente administratiboa eta hartutako erabakiaren ziurtagiria, udal idazkariak emandakoa, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Komertzio eta Kontsumo departamentura bidaltzea, Prezioen Batzordeari bidal diezaion.

7. 807/2024 zk.ko Alkatezako Ebazpenaren berri ematea. Hirigintzako eskumenak.

2024ko apirilaren 9an Alkatezako emandako 807/2024 zenbakiko ebazpenaren berri eman da, zeinaren bidez, Alkatezaren 2323ko ekainaren 23ko 1353/2023 Ebazpenaren bidez Tokiko Gobernu Batzarraren alde egindako eta beheran adierazten diren eskumen-eskuordetze hauek errebotatzen dira, zeinak aurrerantzean, Garazi Usandizaga Zubiria andreak, Informazio Batzordeko presidente eta Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landa Eremuko zinegotzi ordezkariak, baliatuko dituen eskuordetzaz, 2023ko ekainaren 22ko 2023/1350 Alkatezaren Ebazpenean ezarritako baldintzetan:

—Eraikitzeo hirigintza-lizentzia eta lurzoruaren erabilera lizentzia oro ematekoa, alkateza honentzat gorderik dagoen obra txikitako eta lehen erabilera edo okupazioko emakida izan ezik, eta Ordenantzek edo Lege Sektorialek eskuduntza espresuki Udalbatzari egotzia diotenean salbu (T.E.O.L.-eko 21.1.q artikulua, 781/86 T.B.-ko 24.e) artikulua eta AFEJE-ko 41.9 artikulua).



—Sailkatutako jarduera lizentzia oro ematekoa, aurrez aipatutako salbuespenarekin.

Usandizaga andreak, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landaguneko Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. Bueno, bakarrik aipatzea aldaketa hau dela hirigintzako prozedurak bizkorrago egiteko helburuarekin egindako aldaketa bat eta bertan, alde batetik, obra lizentziak, eta bestetik, sailkatutako jardueretako lizentziak, bueno, orain arte tokiko gobernu batzarrean eskuordetuta zeuden eta niregan eskuordetzen dira, tartean denborarik ez galtzeko eta ahal bezain azkar atera ahal izateko.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

8. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 504/2024 zenbakidunetik 894/2024 zenbakidunera eta Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien berri ematea, zehazki, 7/2024 aktatik 9/2024 aktara.

Alkateak zinegotzi guztiei jakinarazi die Alkatezaren ebazpenak, nahiz eta edukiaren berri izan Udalbatzarra aurretik, beraien esku daudela, hain zuzen ere, 504/2024 zenbakidunetik 894/2024 zenbakidunera eta Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien berri ematea, zehazki, 7/2024 aktatik 9/2024 aktara.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

9. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Alkateak galde erreguen txanda ireki du eta jendarteko herritar batek hartu du hitza.

Jarraian, Idazkari jaunak, hartu du hitza eta jendarteari zuzenduz honakoa esan du:

“Aurrekoetan esan bezala. Como se ha mencionado en otras sesiones, esta sesión está siendo retransmitida en directo por streaming. Por lo tanto, si ustedes no tienen, no manifiestan lo contrario, se entiende que consienten la grabación y difusión de las imágenes.”

Jarraitzen du herritarrak hitz egiten.

Alkate jaunak, erantzuten du:

“Estamos, perdóname, estamos hablando sobre el local del bar? Si, bien, yo voy a hablar desde nuestra responsabilidad, porque en los últimos 10 meses la responsabilidad la tenemos nosotros, el equipo de gobierno actual.

“Nos hemos reunido, mínimo dos veces con todos los usuarios, y ahí se empezó un proceso de licitación, si no me equivoco, en noviembre, para la adjudicación del servicio del bar. Y aunque había una empresa, una persona que tenía interés y estaba dispuesta a coger un poco las riendas del servicio de ese local del hogar del jubilado, por motivos ajenos de a este ayuntamiento quedó desierto.

“Mientras tanto, como había problemas de convivencia en el local de Bertxin, como ayuntamiento decidimos, hicimos varias reuniones, incluso estuvimos hablando, ya sabéis, todo esto, pero es para explicar, con el párroco para que cediese un local, que esta en el mismo Ambrosia Olabide, pero bueno, no fructificó, no se llegó a dar. Entonces lo que decidimos, además, conjuntamente con ustedes, fue abrir el local por las tardes de cuatro a ocho. Dimos un periodo de una semana o 10 días para saber si había algún grupo o a alguna persona voluntaria para abrir y cerrar ese local, pero como no salió ninguna persona esa responsabilidad, digamos, la cogió el Ayuntamiento.

“En un principio la apertura y el cierre del local, a las cuatro la apertura y a las ocho, el cierre, se consensuó ese horario con vosotros y con vosotras.

“Sí, se les dijo a los municipales que se tenían que encargarse de dar ese servicio, que es lo que pasa, que los municipales muchas veces están en un accidente, en unas actuaciones que digamos, en causas que tienen bastante trascendencia. Entonces, ante eso, lo que se decidió hace tres semanas, si no me equivoco, hace tres semanas hay una persona del ayuntamiento, el conserje de Bastero, que es el encargado de abrir el local de lunes a viernes a las cuatro y, que yo sepa, se abre puntual.



“De lunes a viernes está esa persona, qué es lo que pasa, que tenemos el problema que teníamos antes, el sábado y el domingo, los municipales si están, digamos, en un accidente o en una intervención, pues van a las cuatro y media, o las cuatro y cuarto, o no van puntual. Entonces, estamos trabajando, para como ya entre semana, de lunes a viernes ya no hay ningún problema. Ahora tenemos el problema el sábado y el domingo, que yo sepa, si no me equivoco.”

Jarraitzen du herritarrek.

Berriro ere, Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa erantzuteko:

“Sabemos que la solución a esa problemática consiste en que se abra el bar, que una persona o una empresa, o sea, y se hizo una licitación y, ya digo, se presentó una persona, que ya entonces, si no tengo mal entendido, hay dos interesados.

“El lunes tendremos una reunión. A ver, nosotros estamos trabajando. Lo que pasa es que nos ha pasado lo mismo en Bastero. Hoy en día, adjudicar un bar no es tan fácil, no es tan fácil, pero que nosotros estamos trabajando en ello, y que el lunes desde Servicios Sociales, porque se han puesto en contacto con Servicios Sociales, tenemos una reunión con dos personas o con dos empresas que están interesadas. Entonces, y ahí. Y voy a hablar en nombre de todos, o sea, si no se ha licitado no es porque ningún partido ha puesto impedimentos, todo el mundo quiere que ese bar se abra cuanto antes. Y nosotros tenemos la responsabilidad. Y nosotros somos los responsables de la situación, pero no hay ningún grupo político que esté impidiendo que se licite, en poner trabas. Se hizo una licitación, ya sabéis cómo quedó, y se están haciendo diferentes gestiones para que ese bar se abra cuanto antes.”

Jarraitzen du herritarrek.

Alkate jaunak, hartu du berriro hitza, honakoa esateko:

“Solo decir que, ya lo he dicho, que el lunes tenemos una reunión, y que se están haciendo diferentes gestiones para poner en marcha lo antes posible ese ese servicio. Muchas gracias.

“Ba amaitutzat emango degu udalbatza orduan. Gogoratu nahi dugu datorren astean Andoainen Santakruz jaiak ospatuko dira eta herritarrei ondo pasatzea eta jaietan parte hartzera gonbidatu nahi dugu. Eta bueno, ea festak denok ere elkarrekin eta ondo pasatzen ditugun. Ondo pasa.”

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 19.22 minutu zirenean. Idazkariak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritz Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.

Alkatea

Idazkaria

